


Abarkagintza

Eskolan egiteko ariketak





Bisita egin baino lehen

Oinutsik ez!

Gure arbasoen ohiko oinetakoa abarkak ziren, eta gaur egun baserritarrez janzten garenean erabiliko dituzu seguru aski. Munduan zehar historian oinetako mota ezberdinak egon dira, beharren eta erabileraren arabera itxura bat edo beste izango zutenak. Ezagut itzazu!



JATORRIA

DESKRIBAPENA

ERABILERA















Osa ezazu jarraian ageri den gurutzegrama, abarkak egiteko materialen izen ezberdinekin:

1. Abarkak egiteko ofizioa
2. Animalietatik lortzen den abarkak egiteko oinarrizko materiala
3. Abarkak egiteko batez ere animalia honen larrua erabili ohi da
4. Artilez eginiko abarkak lotzeko erabiltzen dena
5. Korrika egiteko erabiltzen den oinetakoa
6. Larruzko oinetakoak mantentzeko ematen zaien animalia jatorriko sustantzia
7. Arropa edo oinetakoei kolorea ematen diena
8. Gaur egun badira material honekin egindako abarkak
9. Oinetakoen azpiko aldea

7.-

8.-

5.-

1.-

9.-

3.-

2.-








4.-

6.-




Materialak eta hauen jatorria

Erlaziona ezazu oinetako bakoitza bere egiteko materialekin, eta material bakoitza bere jatorriarekin. Zein ezberdintasun dago lehen egiten ziren oinetakoen (abarkak) eta gaur egun egiten direnen artean?

OINETAKOA	MATERIALA	JATORRIA
	Larrua
	Artilea
	Plastikoa
	Goma
	Kautxua
	Ohiala (kotoia)
	Egurra
Jantzita dituzun oinetakoak		



Ohituren aldaketa

 Oinetakoak puskatzen zaizkizunean zer egiten duzu? Konpontzera eraman edo berriak erosi? Lehen nola izaten zen? Zergatik? Galdetu aitona-amonei eta osatu ezazu jarraian ageri den taula:

	Oinetako kopurua	Non erosi	Konpontzera eraman	Zergatik?	Oinetako ezberdinak zertarako erabili?
Zuk					
Aitona amonek (zure adina zutenean)					

 Ondorio bat baino gehiago atera ditzakezu, aipa itzazu hemen.



Bisita egin ondoren

Astiazaranen asko ikasiko zenuen, goazen konprobatzera.

Larrugintzako pausoak

Lotu ezazu pauso bakoitza dagokion azalpenarekin:

PAUSOA

AZALPENA

Animalia larrutu

Larruazalean itsatsitako haragi puskak, zati koipetsuak...kendu

Larrua ondu

Modu honetan larru eta larruazaletan nahi dugun kolore modu egonkor batez finkatzen dugu.

Garbiketa

Larruazalak aurreko prozesuetan xurgatutako produktu kimikoak kentzeko

Depilatu

Larruak lehortzean galdutako ura hartzen du eta itsatsitako odola, lokatza etab kentzen zaizkio

Haragi-bereizketa

Larruazala bi zatitan zatitzen da

Kare garbiketa

Larrua industrian erabili ahal izateko lehortu egin behar da

Beratzea

Larruaren kanpoko aldean, gantz eta bale-koipea edo arrainaren gibelaren koipearen nahasketa zabaltzen da espatula baten laguntzaz

Larruaren zerratzea

Larruazaleko ileak kentzea, karea edo produktu kimikoak erabiliz

Tindaketa

Animalia hil eta larru azala kentzea

Koipeztaketa

Larruazala biguna geratzeko prozesua



Gogoan al duzu nola egin zenuten abarka?

Ordена itzazu pausoak eta lotu ezazu pauso bakoitza dagokion materialarekin. (materialen artean badaude abarkagintzan erabiltzen ez direnak):

PAUSOAK

MATERIALA

- Markak egin ●
- Sokak jarri ●
- Larrua moztu ●
- Josi ●
- Abarkari buelta eman eta muturra kolpatu ●
- Zulatu ●

- Guraizeak
- Boligrafoa
- Destornilladorea
- Mailua
- Larruzko uhala
- Soka
- Grapagailua
- Haria
- Plastikoa
- Kola

Abarkak egiten dituen baserritarra ezagutu duzu, baina badira eztia, gazta, barazkiak, ogia, frutak, lore eta landareak, ekoiztu eta azokara saltzera joaten diren beste batzuk ere, ezagutzen al dituzu?

“Baserria, natur eskola bizia” programak baserriak, baserritarrak, beraien tailerrak, baratzak, produktuak, ... ezagutzeko aukera ematen dizu, eta gainera beraiekin ikasi eta zu zeuk ere kandelak, abarkak, ogia eta beste hainbat gauza egiteko gai izango zara. Animatu eta joan zaitetz zure inguruan dituzun beste baserri eta baserritar ezagutzera!